

## **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2011KO IRAILAREN 23AN EGINIKO EZOHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako udaletxean, 2011ko irailaren 23ko eguerdiko 12:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez (O.E. BILDU) alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Luis M<sup>a</sup> Diez Gabilondo
  - Miren Alazne KORTA ZULAIKA
  - Iruñe BALENCIAGA ARRESE
  - Jon TXASKO ORGILLES
- (Guztiak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO (EE)

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendik (O.E. BILDU).

Bertan dago, Egintzaz fede emateko, Francisco Javier Lesca Ezpeleta jauna.

### **1. Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko irailaren 2an eginiko ohiko bilkurari eta, urte bereko irailaren 8an egindako ezohiko bilkurari dagozkien akten irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Idazkariak 2011ko irailaren 2an eginiko ohiko bilkurari eta irailaren 8an egindako ezohiko bilkurari dagozkien aktak irakurri ondoren,

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

## **ERABAKIDU**

- Onartzea 2011ko irailaren 2an eginiko ohiko bilkurari eta irailaren 8an egindako ezohiko bilkurari dagozkien aktak.

### **2. Proposamena: ofizial igeltsero lanpostu bat, zerbitzu-eginkizunetan, denboraldi batez betetzeko deialdi-murriztua egitea. Deialdia arautuko duten oinarriak onartzeko proposamena.**

Deialdiaren xedea da Lanpostu Zerrendan 5252 kodearekin hutsik dagoen ofizial igeltsero lanpostua zerbitzu-eginkizunetan denboraldi batez betetzea, hain zuzen, lanpostua behin-betikotasunez dagokion hautaketa prozesuaren bitartez bete arte.

Aipatutako lanpostua nola bete aztertzeko xedez Kontratazio-mahaia elkartu zen 2011-09-15ean eta barne-deialdi baten bidez egiteko akordioa hartu zen, Hiri Mantenimenduko karrerako funtzionarioen artean, hain zuzen, C2 eta Talde Profesionala taldeetan kokatuta daudenen artean (lehen D eta E taldea).

Deialdiko oinarriak, langileen ordezkariekin negoziatu dira, adostasuna lortu delarik.

Jakinaren gainean egonik, Alkatetzak 2011ko ekainaren 27ko Dekretuan erabakitako eskuordetzen baitan, erabaki hau hartzea Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena dela.

Giza Baliabideko ordezkariaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

## E R A B A K I D U

1. Deialdia egitea ofizial igeltsero lanpostua —LZko 5252 kodea duena— denboraldi batez, zerbitzu-eginkizunen bidez, betetzeko.
2. Onartzea deialdia arautuko duten oinarriak, espediente honetan jasota daudenak.
3. Gastua baimentzea aurrekontuaren I. kapituluaren gain, hain zuzen aurrekontuko diru-izendapena duelako.
4. Iragarkiak argitaratzea Udaleko iragarki-oholean eta udal intraneten.

### **3. “Kaputxinoetako 04 Areak, Basanoaga eta Sorgintxulo kaleen arteko irisgarritasuna errazteko 2 igogailu publiko eta jarduketak burutzeko proiektuan sarturiko obrak” esleitzea.**

2011ko ekainaren 8ko Alkatetza Ebazpen bidez espedientea abian jarri zen “2 igogailu publiko jarri eta Basanoaga eta Sorgintxulo (gaina Kaputxinoetako 04 arean) kaleen arteko irisgarritasuna hobetzeko jarduera obren proiektua” prozedura ireki bidez kontratatzeko (hainbat irizpide).

Proposamenak egiteko epean hamabik (12) egin dute, hain zuzen ere “CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA, S.L.”; UTE: “VIVIENDAS Y SOLARES DEL NORTE, S.L.” eta “ASCENSORES MUGUERZA, S.A.”; “OBRAS ESPECIALES GIPUZKOA, S.A. (OBEGISA)”; “CAMPEZO CONSTRUCCION, S.A.U.”; UTE: “IC CONSTRUCCION, INGENIERIA Y GESTIÓN DE OBRAS, S.A.” y “DC CONSTRUCCION, INGENIERIA Y GESTION DE OBRAS, S.A.”; UTE: “ANTIA ERAIKI, S.L.” y “CONSTRUCCIONES GALDIANO, S.A.”; UTE: “URBYCOLAN, S.L.” y “ORONA, S.COOP”; “EKOLAN OBRAS Y SERVICIOS, S.L.”; “LURGOIEN, S.A.”; “CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A.”; “CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.” y la UTE: “AZYSA OBRAS Y PROYECTOS, S.L.” eta “AZYSA GIPUZKOA OBRAS Y PROYECTOS, S.A.” enpresek.

2011ko abuztuaren 2an (2. gutunazala) eta 2011ko abuztuaren 22an (3. gutunazala) irekitzeko ekitaldiak egin ziren.

Kontratazio-mahaiak 2011ko abuztuaren 22an honako hauek egindako eskaintzak lizitaziotik kanpo uztea erabaki zuen: UTE: “URBYCOLAN, S.L.” eta “ORONA, S. COOP.”; “CAMPEZO CONSTRUCCION,

S.A.U.”; “EKOLAN OBRAS Y SERVICIOS, S.L.”; “OBRAS ESPECIALES DE GIPUZKOA, S.A. (OBEGISA) eta “LURGOIEN, S.A.”, Udal arkitektoak eman duen txostenean agertzen diren arrazoiengatik.

2011ko abuztuaren 29ko Kontratazio-mahaiaren akordioak proposatu zuen José Antonio Antía Etxaniz eta Jesus Ruiz Galarraga jaunak izatea kontratuaren esleipendunak, ABEE: “ANTIA ERAIKI, S.L.” eta “CONSTRUCCIONES GALDIANO, S.A.”-ren izenean, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena zelako.

2011ko abuztuaren 31ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, José Antonio Antía Etxaniz eta Jesus Ruiz Galarraga jaunei eskatu zitzaion, ABEE: “ANTIA ERAIKI, S.L.” eta “CONSTRUCCIONES GALDIANO, S.A.” enpresen izenean, “2 igogailu publiko jarri eta Basanoaga eta Sorgintxulo (gaina Kaputxinoetako 04 arean) kaleen arteko irisgarritasuna hobetzeko jarduera obren proiektua”, kontraturako proposatutako esleipendunak direnez, hamar (10) laneguneko epean lizitazioa arautzen duen baldintza-agiriaren 14. klausulan adierazitako dokumentazioa ekartzeko.

Bestalde, LURGOIEN, S.A.k, baztertua izan delako, alegazioak egin ditu, eta Udal Zerbitzu Teknikoak, ondo baztertua izan zela adieraziz, txostena egin du.

Interesatuak 2011ko irailaren 13an eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita 25.408,91 euroko fidantza jarri ere.

Kontratazio-mahiako buruaren propoamenez,

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

#### **E R A B A K I D U**

1. Lizitazioa **ontzat jotzea** eta LURGOIEN, S.A. eginiko alegazioak baztertzea Udal Zerbitzu Teknikoek eginiko txostenari jarraiki.

2. Jose Antonio Antia Etxaniz eta Jesus Ruiz Galarraga jaunei **esleitzea**, AEE: ANTIA ERAIKI, S.L.” eta CONSTRUCCIONES GALDIANO, S.A. ren izenean, 599.650,30 euroz (BEZA barne) “2 igogailu publiko jarri eta Basanoaga eta Sorgintxulo (gaina Kaputxinoetako 04 arean) kaleen arteko irisgarritasuna hobetzeko jarduera obren proiektuan sartutako obrak” exekutatzeko kontratua –epea 4 astez murrizten duena, beti ere lehiaketa arautu zuten baldintza-agiri ekonomiko-administratiboak eta teknikoaren arabera eta esleipendunak eginiko eskaintza –espedientean jasota dagoena– kontuan izanik. Zorpeko zk.a: A-1006-2011.

3. Erabakiaren **berri ematea** esleipendun suertatu ez diren guztiei.

4.- Esleipendunari **eskatzea** 10 eguneko epean, esleipen-jakinazpena egin denetik kontatzen hasita, Udaletxera etortzeko kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

5.- kontratuaren esleipena **argitaratzea** Errenteriako udalaren kontratatzailearen profilean iragarkia ipinita.

6. Alkatea espreski **ahalmentzea** kontratua sinatzeko.

#### **4. "2011n herrian hainbat kale zolaztatzeko proiektuan sarturiko obrak" esleitzea.**

2011ko uztailaren 27ko Alkatetza Ebazpen bidez espediente abian jarri zen "Herriko hainbat kale asfaltatzeko proiektuan sartutako obrak - 2011" kontratatzeko prozedura negoziatuaren bidez.

Proposamenak egiteko epean lau (4) egin dituzte, hain zuzen ere "ASFALTOS DEBA, S.A."; "CAMPEZO CONSTRUCCION, S.A."; "GUIPASA, S.A." eta "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L." enpresek.

2011ko abuztuaren 29an plikak irekitzeko ekitaldia egin zen.

2011ko irailaren 5eko Kontratazio Mahaiaren akordioak proposatu zuen Iñaki Pérez de Albeniz Campos jauna, "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L."-ren izenean diharduena, kontratuaren esleipenduna izatea, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena zelako.

2011ko irailaren 6ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, Iñaki Pérez de Albeniz Campos jaunari, "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L." enpresaren izenean diharduenari, "Herriko hainbat kale asfaltatzeko proiektuan sartutako obrak - 2011", kontraturako proposatutako esleipenduna denez, eskatu zitzaion hamar (10) laneguneko epean lizitazioa arautzen duen baldintza-agiriaren 11. klausulan adierazitako dokumentazioa ekartzeko.

Interesatuak 2011ko irailaren 16an eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita 7.987,01 euroko fidantza jarri ere.

Kontratazio-mahiako buruaren propoamenez,

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

1. Iñaki Pérez de Albeniz Campos jaunari, "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L."-ren izenean diharduenari, "Herriko hainbat kale asfaltatzeko proiektuan sartutako obrak - 2011" izeneko kontratua **esleitzea**, 188.493,58 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne), betiere Udaltzaingoko Teknikariak, Juan Enrique Bengoetxeak, idatzitako Proiektu teknikoaren arabera, hala nola lizitazioa arautu duten baldintza ekonomiko-administratiboen agiriei eta espedientean jasota dagoen esleipendunaren eskaintzari jarraiki (Zorpeko zk.a: A-1380-2011).

2. Erabakiaren **berri ematea** esleipendun suertatu ez diren guztiei.

3. Esleipendunari **eskatzea** 10 eguneko epean, esleipenaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, Udaletxera etortzeko kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

4. Kontratuaren esleipena **argitaratzea** Errenteriako udalaren kontratatzailearen profilean iragarkia ipinita.

5. Alkatea espresuki **ahalmentzea** administrazio kontratua sinatzeko.

#### **5. Proposamena: Arkuarekin tiroa egiteko Ostadar K.E. Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzea.**

Enrique Fernandez Lizeranzu jaunak, Errenteriako C.D. Ostadar de Tiro con Arco elkartearen izenean, dirua irabaztea xede ez duen Udal Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatzeko eskaera aztertu da.

Kiroletako Udal Patronatuko gerenteak, Udal Araudiaren 4. artikulua xedatutakoaren arabera, proposamena inskribatzearen aldeko irizpena eman du.

Kiroletako Udal Patronatuko buruak 2011ko abuztuaren 29an eginiko proposamena ikusi ondoren.

Eta Errenteriako Kiroletako Udal patronatuko Zuzendaritza Batzordeak proposatuta.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

#### **E R A B A K I D U**

1.- Errenteriako C. D. Ostadar de Tiro con Arco elkartearen Dirua Irabaztea Xede ez duten Elkartearen Udal Erregistroan sartzea.

2.- Erabakiaren berri ematea interesatuari eta Udal-funtsen Kontu-hartzailetzari Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak eragin ditzan.

-----

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 12:45 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, \_\_\_\_\_zenbakitik \_\_\_\_\_ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.